# TXOSTENA / MEMORIA

## 04: OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

2011eko ekitaldia, 2009koa bezalaxe, bizi garen krisi ekonomikoak markatzen du bete betean. Egoera horrek eredu ekonomikoa aldatzea eskatzen du epe luzera, baina epe laburrera aldi baterako neurriak hartu beharko dira krisialdia gainditzen laguntzeko, susperraldia hasi bitartean.

Gipuzkoako 2011ko Aurrekontu Orokor hauek prestatzeko irizpideak edo aurreikusitako arau garapena bide horretakoak dira.

Aurrekontu hauetan ereastuak murrizpen nabarmena du, bi irizpide erabilita: Gipuzkoari onura handiena dakarkioten proiektuak hautatzea eta mantentzea, eta gastu ez-emankorrenak murriztea

Bestalde, oraindik eusten zaie enpresei eta gizatalde behartsuenen laneratzeari zuzendutako pizgarriei, lurraldearen ekonomia eta gizarte jardueraren berreskurapena azkartze aldera.

Bestetik, ikuspuntu fiskaletik begiratuta, behin aurreko ekitaldietan onartuta krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egiteko neurriak, 2011rako aurreikusita dago garatzea, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan, zerga esparru egonkor bat definitzeko lanak, epe ertainean lantzeko asmoz.

Departamentuaren aurrekontu propioan jasota daude, alde batetik, gastua murrizteko printzipioak eta, bestetik, 2009/2012 kudeaketa planean eta 2008/2001 sistema planean aurreikusitako helburuak betetzeko ekintzen doikuntza.

Departamentuaren erreferentzia diren helburuak (zuzendaritzen programetan jasota daude) mantendu egiten dira 2011rako. Hauek dira:

- Zergak biltzea modu zuzen eta ekitatiboan.
- Zerga iruzurrari aurrea hartzea eta zigortzea.
- Segurtasun juridikoa bermatzea.
- Aitzindari izatea herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoan (e-administrazioa).

## 04: DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

El ejercicio 2011 continúa con la línea iniciada en el 2009, derivada de la actual crisis económica, que requiere a largo plazo un cambio en el modelo económico y, a corto plazo, medidas temporales que ayuden a salvar el período de crisis hasta que se inicie la recuperación.

En esa línea se encuentran los criterios de elaboración de estos presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el 2011.

En estos presupuestos se realiza un nuevo esfuerzo de reducción del gasto mediante la aplicación de dos criterios: selección y mantenimiento de los proyectos de mayor interés para el Territorio y reducción de los gastos más improductivos.

Por otro lado, se mantienen todavía los estímulos dirigidos a las empresas y a la inserción laboral de los colectivos más desfavorecidos, a fin de acelerar la recuperación del Territorio.

Por otro lado, desde el punto de vista fiscal, aprobadas en ejercicios anteriores las medidas dirigidas a superar los efectos de la crisis económica, para 2011 se prevé el desarrollo, dentro del marco de la OCTE, de los trabajos de definición de un marco fiscal estable y con una vocación de permanencia en el medio plazo.

El presupuesto propio del Departamento refleja los principios de contención del gasto antes señalados y el ajuste de las acciones para el cumplimiento de los objetivos previstos en el plan de gestión 2009/2012 y en el plan de sistemas 2008/2011.

Los objetivos que sirven de referencia al Departamento y que se reflejan en los programas de las distintas Direcciónes, se mantienen para el 2011:

- Recaudación fiscal ajustada y equitativa
- Prevención y represión del fraude fiscal
- Seguridad jurídica garantizada
- Liderazgo en el acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos (e-administración).

- Langileen departamentuarekiko atxikimendua eta gogobetetzea berreskuratzea.
- Herritarren konfiantza berreskuratzea.

Sistema plana bost arlo nagusitan antolatuta dago, eta 32 proiektu lerro jasotzen ditu. Plana egungo egoerara moldatuta dago: exekuzio aldiak berrantolatu dira eta eragin handieneko proiektuei lehentasuna eman zaie.

Arlo hauek garatuko dira:

Administrazio elektronikoa: alor honetako proiektu nagusia da espediente elektroniko eredugarria definitzea, zerbitzuen katalogoa prestatzea eta horiek espediente sistema definituaren arabera garatzea, hori guztia Administrazio Elektronikoaren Legeak jasotakoa betetzearren. Behin 2010ean amaituta espediente elektronikoaren eredua eta zerbitzu katalogoa eginda, 2011. urtean bi proiektu aitzindari garatuko dira: ikuskapen kudeaketa eta Batzar Nagusiek departamentuei eskatutako jarduketen kudeaketa

.

Kontratazio elektronikoa: proiektu nagusia faktura elektronikoa garatzea da, 2010ean amaitu baitzen.

Barne kontrola: zerga baliabideak eta gastuak behar bezala kudeatzea bermatzen duten kontrol sistemak definitzea eta aplikazio informatikoetan ezartzea da helburua. Beraz, definizioz izaera iraunkorra du.

Iruzurraren aurkako borroka: proiektu nagusia da ikuskapen prozeduren kudeaketa orokorreko sistema bat ezartzea. Proiektuaren lehen fasea 2010ean amaitu zen, eta zergadunen hautapenari eragiten dio. 2011ko lehen lauhilekoan, bigarren fasea abiatuko da (egiaztapen fasea) eta espediente elektronikoa kudeatzeko eredura egokituko da.

Barne kudeaketa hobetzea: 2011n amaituko da gorabeheradun likidazioak kudeatzeko proiektua. Bestetik, arlo honetan helduko zaio enpresei, 10 langiletik gorako banakako enpresariei eta modalitate horreterako prestatuta dauden beste talde batzuei elektronikoki jakinarazteko proiektuari.

- Recuperación de la identificación con el Departamento y satisfacción de los trabajadores
- Recuperación de la confianza de la ciudadanía.

El plan de sistemas prevé cinco grandes áreas que recogen 32 lineas de proyectos. El plan se adapta a la actual situación, reperiodificando su ejecución y primando los de mayor impacto.

Las áreas a desarrollar son:

Administración electrónica: El proyecto de mayor envergadura en esta área es la definición del expediente electrónico tipo, realización del catálogo de servicios y desarrollo de éstos conforme al sistema de expediente definido, a fin de dar cumplimiento a las previsiones de la Ley de Administración electrónica. Finalizada en 2010 la definición del modelo de expediente electrónico y realizado el catálogo de servicios, en 2011 se desarrollarán dos proyectos piloto: la gestión inspectora y la gestión de actuaciones solicitadas por las Juntas Generales a los distintos Departamentos.

Contratación electrónica: El proyecto fundamental es el desarrollo de la factura electrónica, finalizado en 2010.

Control interno: Definición e implementación en las aplicaciones informáticas de los sistemas de control que garanticen una correcta gestión de los recursos tributarios, así como de los gastos. Es por tanto, por definición, de carácter permanente.

Lucha contra el fraude: el proyecto principal es la implantación de un sistema de gestión integral de los procedimientos de inspección. La primera fase del proyecto, que afecta a la selección de contribuyentes finalizó en 2010. En el primer cuatrimestre de 2011 se pondrán en marcha la segunda fase, de comprobación, así como su adaptación al modelo de gestión del expediente electrónico.

Mejoras en la gestión interna: en 2011 finaliza el proyecto de gestión de liquidaciones con incidencias. Por lo demás, en esta área se abordará el proyecto de notificación electrónica para la empresas, empresarios individuales con más de 10 trabajadores y otros colectivos especialmente preparados para esta modalidad.

POLITIKA HORIZONTALAK

Departamentuak hainbat ekimen abiatuko ditu ekitaldian, gai hauen ingurukoak: kalitate politikak, aukera berdintasuna, euskara lan hizkuntza izatea, garapen iraunkorra, eta programa honetan jasota dauden bestelakoak.

2011n Departamentuaren helburua da bertan prestatzen diren arau proiektuak generoaren ikuspegitik aztertzeko kultura apurka-apurka ezartzea.

Zuzendaritza nagusiei dagokienez, jarraian jasotzen dira beraiek kudeatutako programen helburuak.

FORU AUZITEGI EKONOMIKO ADMINIS-TRATIBOA

Datorren 2011ko ekitaldian Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak ondoko helburu eta jarduketei helduko die, arreta berezia jarriz auzitegiko antolakuntzan hainbat alderdi hobetze aldera (giza arlokoak, prozedurazkoak eta teknologikoak), hori guztia kalitatezko zerbitzu publiko eraginkorra eskaintzen jarraitzeko.

1- Ezarritako arauzko epeak bete eta hobetzea.

2- FAEAk egindako kudeaketaren emaitzak bere webgunean argitaratzea.

3- Kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzea, zergadunek egindako balorazioak aztertuta.

4- FAEAren Zerbitzu Kartaren emaitzak argitaratzea.

5- Zerbitzu Kartan hartutako konpromisoak kudeatu eta betetzea.

**Auzitegiaren antolamendua hobetzea**

1- Lan egitarauak prestatzea eta irizpide eta lehentasunak finkatzen lagunduko duten funtzionamendu lerro nagusiak ezartzea.

2- Etengabeko hobekuntzan kalitatezko teknikak ezartzea.

POLITICAS HORIZONTALES

El Departameno cuenta con diversas iniciativas relacionadas con las políticas de igualdad de oportunidades, implantación del euskera como lengua de trabajo, desarrollo sostenible, políticas de calidad y otras que se reflejan en este programa.

En 2011 es objetivo del Departamento implantar progresivamente una cultura de análisis desde la perspectiva de género, de los proyectos de norma que se elaboran en el Departamento.

En lo que afecta a las Direcciones Generales, a continuación se señalan los objetivos recogidos en los programas cuya gestión asumen**.**

TRIBUNAL ECONÓMICO ADMINISTRATIVO FORAL

A lo largo del proximo ejercicio 2011 el Tribunal Económico-Administrativo Foral, va a abordar los siguientes objetivos y actuaciones incidiendo muy en particular en las mejoras organizativas del Tribunal en su aspecto humano, procedimentales y tecnológicos para continuar en la línea de ofrecer calidad y eficiencia en el servicio público.

1- Mejorar los plazos de tramitación y resolución de las reclamaciones interpuestas.

2- Publicar los resultados de la gestión del TEAF en su página Web.

3- Ofrecer un servicio público de calidad, analizando las valoraciones realizadas por las personas contribuyentes.

4- Publicar los resultados de la Carta de Servicios del TEAF.

5- Gestionar y velar por el cumplimiento de los compromisos adquiridos en la Carta de Servicios.

**Mejoras en la organización del Tribunal**

1- Elaboración de programas de trabajo, estableciendo líneas generales de funcionamiento para fijar criterios y prioridades

2- Continuación en la aplicación de técnicas de calidad en la mejora continua.

3- Langileria arlo desberdinetan prestatzea, auzitegi honen foro desberdinek egindako proposamenetan oinarrituta.

4- Langileria sistema informatiko berrira egokitzea.

5- Sistema informatiko berriarekin jarraitzea.

6- Informazio estatistikoa hobetzea.

7- Programa informatikoak prozeduren exijentzia berrietara, kalitate planetara eta egungo teknologiara egokitzea.

8- Erreklamazioak ebazteko epeak hobetzen dituzten programak finkatzen eta berrikusten jarraitzea, foro desberdinen proposamenetan oinarrituta.

9- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkezteko zerbitzu telematiko berria hedatzea.

10- Telematikoki tramitatutako erreklamazio ekonomiko-administratibo berriak kudeatzea.

11- CGIren, Foro Teknikoaren eta Unitate Administratiboaren arteko bilerak egiten jarraitzea.

12- Foru Auzitegiaren bezeroen beharrizan eta itxaropenak aztertu eta antzemateko metodoak abian jartzea.

13- Gorabeherak kudeatzea eta tratatzea.

**<u>Zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzea</u>**

1- Auzitegiko Erregistro Zerbitzuan eta Herritarren Arretarako Zerbitzuan jendeari ematen zaion arreta hobetzea propio egindako inkestetako emaitzak erreferentzia harturik.

2- Erreklamazioak ebazteko eta erabakiak hartzeko ezarrita dauden legezko epeak hobetzea, zerbitzu kartan hartutako konpromisoak betetzeko.

3- Formación del personal en distintas áreas, en base a las propuestas realizadas por los diferentes foros que componen este Tribunal.

4- Adecuación del personal al nuevo sistema informático.

5- Continuar con la puesta en marcha del un nuevo sistema informático.

6- Mejora de la información estadística

7- Adecuaciones de los programas informáticos a las nuevas exigencias procedimentale, planes de implantación de calidad y a la tecnología actual.

8- Continuar con la implantación y revisión de programas de mejora que incidan en los plazos de resolución de las reclamaciones interpuestas, en base a las propuestas realizadas por los diferentes foros.

9- Divulgación del nuevo servicio telemático de interposición de reclamaciones económico-administrativas.

10- Implantación de la gestión de las reclamaciones económico-administrativas tramitadas vía telemática.

11- Continuar con la realización de reuniones del CGI, Foro Técnico y Foro de la Unidad Administrativa.

12- Continuar con el análisis y detección de necesidades y expectativas de clientes del TEAF.

13- Gestión y tratamiento de incidencias.

**<u>Calidad del Servicio Público</u>**

1- Mejora en la atención al ciudadano en el Servicio de Registro del TEAF y en la atención al público en el Servicio de Atención al Ciudadano, tomando como referencia los resultados de las encuestas realizadas al respecto.

2- Mejora en los plazos legales establecidos para la resolución de las reclamaciones y adopción de acuerdos, en base a los compromisos adoptados en la Carta de Servicios.

3- Ebazpen berritzaile eta garrantzitsuenak webgunean argitaratzeko era hobetzea.

3- Mejora en la publicación de las resoluciones más novedosas y relevantes en la pagina WEB.

4- Foru Auzitegiaren webgunea hobetu eta eguneratzea, irisgarritasuna hobetuz eta, besteak beste, webgunean bilaketa azkarrerako bideak emanez.

4- Mejora y actualización de la página Web del TEAF, mejorando la accesibilidad y estableciendo entre otros, la búsqueda inteligente en la página WEB.

5- Erreklamazio ekonomiko-administratiboak internet bidez aurkezteko zerbitzua eskaintzea, Ogasunatariaren bidez.

5- Ofrecer el servicio de interposición de reclamaciones económico-administrativas vía internet, a través del portal "Ogasunataria".

6- Zergadunarentzako zerbitzua hobetuko duen sistema informatiko berria abian jartzea.

6- Puesta en marcha del nuevo sistema informático que mejorará el servicio al contribuyente.

7- Eguneratzea eta hobetzea erreklamazioak Foru Auzitegian aurkezteko auzitegiaren webgunean argitaratzen den herritarren gida.

7- Actualizar y mejorar la guía del ciudadano publicada en nuestra página Web para la presentación de reclamaciones en el TEAF.

8- Auzitegian erreklamazioak aurkezteko dibulgazio gida argitaratzea, herritarrei zuzendua.

8- Editar una guía divulgativa del ciudadano para la presentación de reclamaciones en el TEAF.

9- Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraibideak betetzea hizkuntza ofizialen erabilera planari dagokionez.

9- Cumplimiento de las directrices de la Diputación Foral de Gipuzkoa en cuanto al plan de uso de las lenguas oficiales.

10- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Planean ezarritako jarraibideak betetzen segitzea.

10- Proseguir con las directrices marcadas por el plan de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

11- Prozesu mapa berrian ezarrita dauden adierazleak aztertzen eta tratatzen jarraitzea.

11- Continuar con el análisis y tratamiento de indicadores establecidos en el nuevo mapa de procesos.

12- Kanpoko zein barruko agenteen beharrizan eta espektatibak aztertzea urtero propio egingo diren inkesten bitartez eta Auzitegian bertan dauden foroak erabilita.

12- Análisis de necesidades y expectativas de los diferentes agentes externos e internos, mediante encuestas anuales que se realizarán al efecto y través de los diferentes foros existentes en el TEAF.

**Departamentuen barruko eta horien arteko harremanak, eta erakundeen artekoak**

**Relaciones departamentales, interdepartamentales e institucionales**

Aurrekoaz gain, jarduketa hauek egitea aurreikusia du Foru Auzitegiak:

Además de lo anterior este Tribunal tiene previsto realizar las siguientes actuaciones:

- Barruko eta erakundeen arteko batzorde eta organoetan parte hartzea.

- Participar en diversas comisiones u órganos tanto internos como interinstitucionales

- Beste auzitegi ekonomiko-administratibo batzuekin antolatutako topaketetan parte hartzea.

- Tomar parte en encuentros con otros Tribunales Económico-Administrativos.

OGASUN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Ogasun eta Finantza Departamentuaren jarduna zergen eremuan gidatuko duten printzipio eta helburuak Ogasun Zuzendaritza Nagusiak garatu behar dituen 10. eta 11. programetan daude islatuta.

10. programaren barruan Zuzendaritza honentzat etengabeko lan ildo diren helburu eta jarduketak jasotzen dira, horiek betetzeko baliabideak barne. Bere aldetik, 11. programak, Iruzurraren aurkako Plan Bereziari buruzkoak, helburu eta neurri bereziak biltzen ditu, horiek gauzatzeko beharrezkoak diren aparteko baliabideekin batera.

Testuinguru horretan, hainbat jarduketa lerro garatuko dira, honako helburuak lortzearren:

1. Zergadunaren arreta zerbitzu integrala hobetzea honako printzipioak aintzat hartuta: administrazio gardena, herritarrei irekia eta haiengandik hurbila, etengabeko zerbitzua, balioanizduna eta kanal anitzekoa.

2. Zerga obligazioak nork bere borondatez betetzea sustatzea.

3. Herritarrak zerbitzu publikoetan elektronikoki sartzeko legeak jasotako xedapenetara egokitzea, eta espediente elektroniko eredugarria areago definitzea.

4. Zerga administrazioen arteko lankidetza jarduketak areagotzea eta zerga informazioa trukatzeko fluxuak zabaltzea.

5. Ikuskaritza Plana prestatzean, ikuskatu beharreko zergadunak hautatzean, eta ikuskaritzako jarduketak kudeatzean Ikuskaritzako Sistema Orokorra (IKUS) aplikatzea eta bere funtzionamendua egiaztatzea.

6. Foru araudiaren garapenean parte hartzea.

7. Zerga iruzurraren aurkako borrokan departamentuak aurrera eramaten dituen jarduketak indartzea (11. programan daude bereziki jasota).

DIRECCIÓN GENERAL DE HACIENDA

Los principios y objetivos que marcarán la actividad del Departamento de Hacienda en el ámbito tributario tienen su reflejo en los programas 10 y 11, los cuales se desarrollarán por la Dirección General de Hacienda.

En el programa 10 se recogen los objetivos y actividades que constituyen una línea de actuación permanente de la Dirección junto con los medios necesarios para su cumplimiento, y en el programa 11, relativo al Plan Especial de Lucha contra el Fraude, los objetivos y medidas especiales junto con los medios extraordinarios necesarios para su ejecución.

En este contexto, se desarrollarán determinadas líneas de actuación dirigidas a :

1. Mejorar el servicio integral de atención al contribuyente bajo los principios de administración transparente, cercana y abierta al ciudadano, servicio continuo, polivalente y multicanal.

2. Fomentar el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

3. Adaptarse a lo previsto en la Ley de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos y avanzar en el desarrollo del expediente electrónico.

4. Ampliar las actuaciones de colaboración entre las distintas administraciones tributarias y ampliar los flujos de intercambio de información fiscal.

5. Aplicar y verificar el funcionamiento del Sistema Integral de Inspección (IKUS) en la elaboración del Plan Inspección, en la selección de contribuyentes objeto de inspección, así como en la gestión de las actuaciones inspectoras.

6. Participación en el desarrollo de la normativa foral

7. Reforzar las actuaciones del Departamento en la lucha contra el fraude fiscal (contenidas especialmente en el programa 11).

8. Zuzendaritza Nagusiko langileen gogobetetze maila ebaluatzea.

9. Langileen prestakuntza garatzea.

10. Kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna bultzatzea, foru administrazioak ematen dituen zerbitzuak erreferentzia zerbitzuak izan daitezen.

Zehazki esanda, 2011eko ekitaldiari dagokionez honako **jarduketak** garatuko dira 10. programaren barruan:

**1. Garapen informatikoaren** alorrean:

- Ikuskaritzako Sistema Orokorra (IKUS) amaitzea eta abian jartzea.
- Eskualdaketen eredua, oinordetza eta dohaintzena, eta notaritzako eskriturak telematizatzea.
- Egin gabeko aitorpen eta aitorpen-likidazioen prozesuak telematizatzea.
- Errekurtsoen aurkezpen telematikoa
- IFZ bide telematikoz eskuratzea.
- Txartelak ordainketa-sistema gisa erabiltzea.
- BEZaren prozesuak berrikustea, itzultzekoak diren hileko aitorpenak kudeatu eta kudeaketa automatizatuaren sistema bat ezartzeko asmoz.
- Atxikipenen arloko aplikazio berria garatzea.
- Aplikazio berri bat garatzea frogagiriak behar dituzten aitorpenak telematikoki kudeatzeko.
- Errekurritutako likidazioak kudeatzeko prozesuak aztertzea.
- Informazio estatistikoa hobetzea, eta erabiltzaileei haien erabilpena erraztea.
- Jakinarazpen prozesuak hobetzea prozedurak autormatizatuz

8. Evaluar el grado de satisfacción del personal de la Dirección General.

9. Desarrollo de la formación del personal.

10. Potenciar la calidad y la excelencia en la gestión de manera que que los servicios prestados por la administración foral constituyan servicios de referencia.

En concreto, en el ejercicio 2011 y dentro de los objetivos previstos en el programa 10, se desarrollarán las siguientes **actuaciones**:

**1.** Actuaciones de **desarrollo informático**:

- Finalización y puesta en marcha del Sistema Integral de Inspección (IKUS).
- Telematización del modelo de transmisiones, de sucesiones y donaciones y de las escrituras notariales.
- Telematización de los procesos de declaración y declaración-liquidación pendientes.
- Presentación telemática de recursos.
- Obtención del NIF de forma telemática.
- Introducir las tarjetas como sistema de pago.
- Revisión de procesos en el IVA con objeto de gestionar las nuevas declaraciones mensuales a devolver e implantar un sistema de gestión automatizada.
- Desarrollo de una nueva aplicación en materia de retenciones.
- Desarrollo de una nueva aplicación para la gestión telemática de las declaraciones con justificantes.
- Análisis de los procesos para la gestión de las liquidaciones recurridas.
- Mejora de la información estadística, facilitando su utilización a los usuarios.
- Mejora en los procesos de notificaciones automatizando procesos.

- Zuzendaritza Nagusiko unitateen barruan barne komunikazioa sustatzea.

- Zerga administrazioak zergadunak kontrolatzeko duen egitekoa erraztuko duten aplikazioak abiaraztea, bai hautapenaren ikuspegitik eta bai egiaztapenaren ikuspuntutik.

**2. Kudeaketa arloko jarduketak:**

- Urteko kanpainak egitea:
  - zerga itunduak biltzekoa (errenta, sozietateak, udal zergak, eredu informatiboak).
  - zergadunen aitorpenak egiaztatzekoa.
  - aitortu ez dutenei errekerimenduak egitekoa.
  - hirugarrenei informazioa eskatzekoa BEZik aitortu ez dutenei likidazioa egiteko.
  - nekazari eta abeltzainei hidrokarburoen gaineko zerga itzultzekoa.

- Zergadunen zerga egoera egiaztatzeko eta zerga iruzurraren aurka egiteko urteko beste programa batzuekin segitzea, urteko zerga egiaztapenerako planaren barruan.

- Aitorpen ereduak aztertzea, horiek erraztu eta edukia beste zerga administrazio batzuenarekin bateratze aldera.

- Eredu informatiboen edukia hobetzea.

- Talde fiskal berriek BEZa dela eta aurkeztutako aitorpenak egiaztatzea.

**3. Iruzurraren aurkako plana:**

- Zerga Egiaztapenerako Plana onartu eta gauzatzea, ikuskapen plana barne hartuta, Departamentuak iruzurraren aurka egiten duen guztia planifikatzeko.

- Hona hemen zerga iruzurraren aurkako lana gidatuko duten jarduketa printzipioak:

  a) Jarduera enpresarial eta profesionalen kontrol berezia.

- Fomento de la comunicación interna dentro de las Unidades de la Dirección General.

- Puesta en marcha de aplicaciones que faciliten el desarrollo de la labor de la administración tributaria en el control de los contribuyentes, tanto en el aspecto de la selección como de la comprobación.

**2. Actuaciones de gestión:**

- Realización de las campañas anuales:
  - de recaudación de los tributos concertados (Renta, Sociedades, Tributos Locales, modelos informativos )
  - de comprobación de las declaraciones de los contribuyentes.
  - de requerimientos a no declarantes.
  - de requerimientos de información a terceros para la liquidación a no declarantes del IVA.
  - de devoluciones del Impuesto sobre Hidrocarburos a agricultores y ganaderos.

- Continuación de otros programas anuales de comprobación de la situación tributaria de los contribuyentes y de la lucha contra el fraude fiscal, enmarcados en el Plan de Comprobación tributaria anual.

- Análisis de diferentes modelos de declaración con objeto de simplificarlos y homogeneizar su contenido con el de otras administraciones tributarias.

- Mejora del contenido de los modelos informativos.

- Comprobación de las declaraciones presentadas por los nuevos grupos fiscales en el IVA.

**3. Plan de lucha contra el fraude**:

- Aprobación y realización del Plan de Comprobación Tributaria, que incluirá un Plan de inspección, que planificará toda la actividad del Departamento en la lucha contra el fraude.

- Los principios de actuación que marcarán la orientación de la lucha contra el fraude fiscal, se basarán en:

  a) El especial control de las actividades empresariales y profesionales.

b) Departamentuaren baliabide guztiak iruzurraren aurka bideratzea, iruzurrari jarraipena egiteko talde bat sortuta.

c) Zerga kontroleko zerbitzuen presentzia publikoa areagotzea.

d) Gizarteak iruzurraren aldeko jarrerak gaitzestea dakarten informazio eta sentsibilizazio ekintzak garatzea.

- Prestakuntza plana gauzatzea eta barruko komunikazio bideak hobetzea.

**4. Herritarrentzako zerbitzuak hobe-tzeko** jarduketak:

Zergadunekiko harreman eta arreta zerbitzuak hobetzeko jarduketen barruan, nabarmendu behar da teknologia berrien erabileran oinarritzen diren harreman mekanismoak indartu nahi direla zerga obligazioak betetzea errazteko. Ekintzen artean hauek azpimarratuko ditugu:

- Errenta Zergaren aitorpenean aurkeztu behar den dokumentazioa murriztea eta sinplifikatzea.
- PFEZren kanpainako beste zerbitzu karta bat onartzea aurreko esperientzia kontuan hartuta eta lortutako emaitzak ebaluatuta.
- Zerga Arretarako Unitatearen zerbitzu karta berriak onartzea (partikularrak eta zerga bitartekariak), aurreko esperientzia kontuan hartuta eta lortutako emaitzak ebaluatuta.
- BEZaren kudeaketari buruzko zerbitzu karta berriak onartzea, hainbat konpromiso hartuta: itzulketen eskaerak tramitatzeko epeak, errekurtsoen ebazpena, zigor prozedurak, kontsultak, etab…
- Foru Ogasunak PFEZ dela-eta egiten dituen autolikidazio proposamenetan informazio elementu gehiago sartzea, eta ordaintzeko emaitza dutenen onarpen maila gehitzea.
- Zerga aholkulariekin, gestoreekin eta entitate laguntzaileekin lankidetzan aritzea aitorpenak prozedura telematikoz aurkezteko, eta aukera ematea aitorpenak internet bidez ere egin daitezen.

b) La orientación de todos los recursos del Departamento a la lucha contra el fraude: creándose un grupo de seguimiento del fraude.

c) El incremento de la presencia pública de los servicios de control fiscal.

d) El desarrollo de acciones de información y sensibilización que fomente la condena social de las actitudes de fraude.

- Ejecución del plan de formación y la mejora de los canales internos de comunicación.

**4.** Actuaciones de **mejora de los servicios al ciudadano:**

Como actuaciones de mejora de los servicios de relación y atención a los contribuyentes, se prevé potenciar los mecanismos que se apoyan en la utilización de nuevas tecnologías, para la simplificación del cumplimiento de las obligaciones fiscales, entre cuyas acciones destacamos las siguientes:

- Reducir y simplificar la documentación en la presentación de la declaración del IRPF.
- Aprobación de una nueva carta de servicios de la campaña del IRPF que tenga en cuenta la experiencia anterior, evaluando los resultados obtenidos.
- Aprobación de nuevas cartas de servicios de la Unidad de Atención Tributaria (particulares e intermediarios fiscales) que tenga en cuenta la experiencia anterior, evaluando los resultados obtenidos.
- Aprobación de nuevas cartas de servicios en relación con la gestión del IVA, en la que contemplen compromisos relativos a los plazos de tramitación de las solicitudes de devolución, resolución de recursos, procedimientos sancionadores, consultas, etc.
- Incorporación de nuevos elementos de información a las propuestas de autoliquidación de IRPF a confeccionar por la Hacienda Foral, así como incrementar el nivel de aceptación de aquellas que resultan a ingresar.
- Colaboración con los profesionales de la asesoría fiscal, gestorías y entidades financieras para la presentación de declaraciones por procedimiento telemático, extendiendo la posibilidad de presentar por internet las declaraciones.

- Zergen webgunea hobetzea, edukiak erraztuz, erabilerrazagoak egiteko.

- Identifikazio gakoa duten pertsona interesatuei informazio pertsonala internet edo telefono bidez emateko era hobetzea.

- Interneten erabilpena bultzatzea zerga aitorpenak egitea errazte aldera, departamentuak homologatutako programa informatiko berriak garatuta.

- Beste administrazioekin modu koordinatuan lan egitea, betiere ez sortzeko zergadunei obligazio berdinak hainbat zerga administrazioren aurrean.

- Kalitatea etengabe hobetzeko teknikak sartzea.

Zerga iruzurra egotea elementu kaltegarria da, ondorio negatibo handiak eragiten baititu gizarte osorako. Hori dela eta, agintari publikoak ahalegindu egin behar dira ez bakarrik portaera horiek zuzentzen eta zigortzen, baita, indar handiagoz ere, prebentziozko neurriak finkatzen ere, zerga obligazioak borondatez betetzea erraztearren.

Zergen Foru Arau Orokorrak, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren bidez onartuak, 112. artikuluan dio urtez urte "Zerga egiaztapenerako plana" egingo dela, eta bere edukian Ikuskaritza Plana ere jasoko duela arauz ezartzen den eran.

Plangintza hori 2006az geroztik onartu diren zerga egiaztapenerako urteko planetan islatu da, eta haien irizpide orokorrak GAOn argitaratu ziren.

2011ko aurrekontuetan, 11. programak neurri bereziak biltzen ditu, eta haiekin batera, baita horiek gauzatzeko behar diren aparteko baliabideen ebaluazioa ere (gehienbat informazio sistemekin lotutakoena).

Zerga iruzurraren aurkako lanean aurrerapenik izango bada, Zerga Administrazioak ezinbestekoa du jakitea nola kudeatuko dituen gertatzen ari diren aldaketak. Hona hemen laburbildurik aldaketa horiek:

- Mejora de la web tributaria, simplificando los contenidos, con objeto de lograr una mayor accesibilidad.

- Mejora en el suministro de información personal por internet o por teléfono a aquellas personas interesadas que dispongan de clave de identificación.

- Potenciación del uso de internet para facilitar la cumplimentación de las declaraciones tributarias, desarrollando nuevos programas informáticos homologados por el Departamento.

- Coordinación con otras administraciones con objeto de evitar molestias a los contribuyentes con obligaciones frente a varias administraciones tributarias.

- Introducción de técnicas sobre mejora continua de calidad.

La existencia del fraude fiscal constituye un elemento nocivo, del que se derivan grandes perjuicios para la sociedad en su conjunto. Por ello, los poderes públicos deben esforzarse, no sólo en la corrección y sanción de dichas conductas, sino también, quizás con más fuerza todavía, en el establecimiento de medidas preventivas que favorezcan el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

La Norma Foral General Tributaria, aprobada por la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, en su artículo 112 establece la elaboración anual de un "Plan de comprobación tributario" que deberá incluir el Plan de Inspección en los términos que se determine reglamentariamente.

Dicha planificación ha tenido su reflejo en los Planes anuales de Comprobación Tributaria aprobados desde 2006, cuyos Criterios Generales fueron publicados en el B.O.G.

En los presupuestos del ejercicio de 2011 el programa 11 recoge las medidas especiales, junto con la evaluación de los medios extraordinarios necesarios para su ejecución, fundamentalmente los relativos a sistemas de información.

Los progresos en la lucha contra el fraude fiscal vendrán dados en función de la manera en que la administración tributaria sepa gestionar los cambios que se están produciendo y que pueden resumirse en:

- Gero eta informazio gehiago kudeatu beharra dago.

- Zerga obligazioak borondatez betetzea errazteko zerbitzuen eskaintza handitzen ari da.

- Beharrezkoa da zerga administrazioak elkarren artean koordinatzea.

- Zerga iruzurra egiteko modu berriak agertu dira.

Horretarako, batez ere arlo hauetan gauzatuko dira jarduketak:

1. Informazio sistemak hobetzea, iruzurraren aurkako lana eraginkorragoa izan dadin.

2011n proiektuak abiatuko dira helburu hauei begira:

- Ikuskaritzako Sistema Orokorraren (IKUS sistemaren) aplikazioa egiaztatzea. Asmoa da egiaztatzea garatutako aplikazioak itxaropenak betetzen dituela Ikuskaritza Plana prestatzeari begira, bai zergadunak hautatzean eta bai ikuskapen funtzioak garatzean, betiere administrazio elektronikoaren puntako eredu lehiakor baten barruan.

- Kanpoko informazioa txertatzeko sistemak hobetzea, informazio hori guztiz baliagarria baita bai kudeaketa prozesuetan eta bai zergadunak hautatzeko prozesuetan, kasuan kasuko kontrol planetan integratzeari begira.

- Zerga Administrazioaren informazio osoa erraz eskuratzeko modua lortzea.

- Barruko zein kanpoko komunikazioak telematizatzea.

- Subjektu jakin batzuen iruzur arriskuak kudeatzea.

- Datuaren kalitatea hobetzea.

2. Herritarrentzako **zerbitzuak** bultzatzen jarraitzea, zerga obligazioak nork bere kabuz betetzea lortu eta iruzurrari aurrea hartzeko ekintzak sustatze aldera.

- Un aumento del volumen de información a gestionar.

- El aumento de la oferta de servicios para facilitar el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

- La necesidad de coordinación entre las diferentes administraciones tributarias.

- La aparición de nuevas formas de fraude fiscal.

Para ello, las actuaciones se van a centrar en las siguientes materias:

1. Mejora de los sistemas de información, con la finalidad de hacer más efectivas las actuaciones de la lucha contra el fraude.

En 2011 se abordarán proyectos dirigidos a:

- Verificación de la aplicación del Sistema Integral de Inspección (IKUS) comprobando que el desarrollo realizado cumple las expectativas de cara a la elaboración del Plan de Inspección, en la selección de contribuyentes y en el desarrollo de las funciones inspectoras, dentro de un modelo de administración electrónica puntero y competitivo.

- Mejorar los sistemas de incorporación de información externa, de utilidad tanto en los diferentes procesos de gestión, como en los procesos de selección de contribuyentes a los efectos de su integración en los planes de control correspondientes.

- Lograr un acceso fácil a toda la información de que dispone la administración tributaria.

- Telematización de las comunicaciones internas y externas.

- Gestionar los riesgos de fraude de determinados sujetos.

- Mejorar la calidad del dato.

2. Continuar la potenciación de los **servicios a los** ciudadanos para procurar un cumplimiento espontáneo de sus obligaciones tributarias y promover acciones preventivas de lucha contra el fraude.

Horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- Egin gabeko aitorpen-likidazioen prozesuak telematizatzea.
- Internetez ordaintzeko sistemak gehitzea.
- Gerorapenen eskaerak telematizatzea.
- BEZean talde fiskal berriak kudeatzea.
- Zergadunentzako informazioa zabaltzea: aitorpenak, likidazioak eta ziurtagiriak.

3. Ogasunari beharrezko tresnak ematea egiaztapen lana hobetzeko, bai espediente berrikusien kopuruari dagokionez eta bai jarduketen bitartekoak eta eraginkortasuna areagotu dezaketen aspektu kualitatiboei dagokienez.

4. **Iruzurraren aurkako neurriak** batik bat eremu hauetan aplikatzea:

   a) Jarduera enpresarial eta profesionalak.
   b) Bazkidearen eta sozietatearen arteko harremanen kontrola.
   c) Moduluen kontrola.
   d) Iruzur inmobiliarioa.
   e) 500 euroko billeteekin egindako eragiketak.
   f) Errentamenduen sarreren kontrola.
   g) Faktura faltsuak.
   h) BEZa, PFEZ eta gainerako zergak aitortzen ez dituztenak.
   i) Zergadunen kontrola eragiketen bolumenari dagokionez.
   j) PFEZn edo sozietateen gaineko zergan berrinbertitzeagatik salbuetsita geratu diren zerga onuren kontrola.
   k) Iruzur talde antolatuak.
   l) Zerga ingeniaritzako eragiketak.
   m) Aldizkako obligazioak betetzea.
   n) Zorren kobrantza hobetzea.
   o) Erantzukizunak deribatzeko jarduketak.
   p) Kautelazko neurriak hartzea.
   q) Ordaindu gabeko zorren segimendua.
   r) Europar Batasunaren eremuan zergabilketa jarduketak abiatzea.

Entre ellos, destacan:

- Telematización de los procesos de declaración-liquidación pendientes.
- Ampliación de los sistemas de pagos por internet.
- Telematización de las solicitudes de aplazamientos.
- Gestión de los nuevos grupos fiscales en el IVA.
- Ampliación de la información a contribuyentes: declaraciones, liquidaciones y certificados.

3. Proporcionar a la organización de Hacienda los instrumentos necesarios para mejorar la actividad de comprobación, tanto en la cantidad de expedientes revisados, como en los aspectos cualitativos que permitan incrementar la productividad de los medios y la eficacia en las actuaciones.

4. Centrar las **medidas de lucha contra el fraude** en los ámbitos siguientes:

   a) Las actividades empresariales y profesionales.
   b) Control de las relaciones socio-sociedad.
   c) Control de los módulos.
   d) Fraude inmobiliario.
   e) Operaciones con billetes de 500 euros.
   f) Control de los ingresos de arrendamientos.
   g) Facturas falsas.
   h) No declarantes de IVA, IRPF y demás impuestos.
   i) Control de los contribuyentes en volumen de operaciones.
   j) Control de los beneficios tributarios disfrutados en materia de exención por reinversión en IRPF e Impuesto sobre Sociedades.
   k) Tramas de fraude organizado.
   l) Operaciones de ingeniería fiscal.
   m) Cumplimiento de las obligaciones periódicas.
   n) Mejora en el cobro de las deudas.
   o) Actuaciones de derivación de responsabilidad.
   p) Adopción de medidas cautelares.
   q) Seguimiento de las deudas no pagadas.
   r) Iniciar actuaciones recaudatorias en el ámbito de la Unión Europea.

s) Zerga delituko prozeduretan erantzukizun zibila kobratzeko jarduketak hastea.

t) Iruzur arriskua agertzen duten zergadunak kontrolatzea.

u) Itzultzekoak diren BEZaren aitorpenak kontrolatzea.

v) IFZ baliogabetzeko neurriak.

w) Informazio trukeak areagotzea.

x) Herritarren informazioa, sentsibilizazioa eta partaidetza.

AURREKONTUAK ETA FINANTZAK

Aurrekontu eta Finantzetako programaren xedea da gardentasun eta efizientzia printzipioetan oinarritutako aurrekontu programazio bat egitea, baliabide publikoak haien arabera esleitu eta erabiltzeko, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007-2011 Kudeaketa Planean eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2008-2011 Plan Estrategikoan jasotako helburuekin bat. Programak bermatzen du helburu horien garapena egokitu egiten dela kudeaketa finantzario onaren printzipioetara.

Azken alderdi hori egiaztatzeko, barne kontroleko prozedurak erabiltzen dira, eta, aldi berean, kontabilitatea oinarrizko elementu bihurtzen da Foru Sektore Publikoa kudeatzeko

Bestalde, aurrekontua denez gobernu taldeak bere politika ekonomiko eta soziala kudeatzeko duen tresna nagusia, baliabideak helburuak betetzeko jarriz eta lehentasun politikoak ezarriz, garrantzi berezia hartzen du genero eraginari buruz aurrekontuan egiten den analisiak.

Alde horretatik, programa honek hainbat adierazle jasotzen ditu arlo horretan egindako aurrerapena erakusteko.

Programa honek 2011rako aurreikusitako helburu eta ekintzak biltzen ditu, denak ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu, finantza, kontabilitate eta barne kontrolaren kudeaketarekin lotuta. Helburu orokorrak eta genero ikuspegitik ezarritakoak betetzera zuzenduko dira beti.

Horretarako, ekitaldi honetako jarduketek helburu hauek izango dituzte:

s) Iniciar actuaciones de cobro de la responsabilidad civil en procedimientos por delito fiscal.

t) Control de contribuyentes de riesgo.

u) Control de declaraciones de IVA a devolver.

v) Medidas de revocación del NIF.

w) Intensificación del intercambio de información.

x) Información, sensibilización y colaboración de la ciudadanía

DIRECCIÓN GENERAL DE PRESUPUESTOS Y FINANZAS

El programa de Presupuestos y Finanzas tiene como finalidad realizar una programación presupuestaria basada en los principios de transparencia y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos, de acuerdo con los objetivos marcados en el Plan de Gestión 2007-2011 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como del Plan Estratégico 2008-2011 del Departamento de Hacienda y Finanzas, garantizando que el desarrollo de los mismos se adecua a los principios de buena gestión financiera.

Para verificar este último aspecto se utilizan los procedimientos de control interno aplicables al tiempo que se dispone de la contabilidad como elemento básico de la gestión del Sector Público Foral.

